

bidaiari

naiz: en bidaia aldizkaria

2022ko urtarrila | 005. zenbakia | 1,50€



«SKORPIOS III» ONTZIAN

Patagoniako eremu latzenean

CASALE | SIGIRIYA | LANZAROTEKO MAHATSONDOAK | SAIOA | EKUADOR | LARHUN TRENA | BUDAPEST

Badago ezagutzeko mundu bat



bidaiari
naiz:-en bidaia aldizkaria

11 ZENBAKI URTEAN, 15€

HARPIDETU ZAITEZ!

URTEKO HARPIDETZA Euskal Herrian 15€ · Ipar Euska Herrian 25€ · Estatu espainolean 18€ · Europan 50€

Bidal ezazu kupoi hau honako helbide honetara:

Bidaiari Portuetxe 23, 2. solairua 20018 Donostia (Gipuzkoa) EUSKAL HERRIA

Izena			
Abizenak			
Helbidea			
Herria	Posta Kodea	Herrialdea	
NAN	E-Posta	Telefonoa	
Kontu korrante zenbakia			
Kontuaren Jabea			

Nahiago izanez gero, mezu elektronikoko bat bidal dezakezu bidaiari@astero.net helbidera, kupoiaren azaltzen diren datuekin edo www.naiz.eus/bidaiari web orrian sar zaitezke eta harpideteko formularioa bete dezakezu.

Urruina distribution & services, S.L.-ren produktuei eta/edo sustapenei buruzko informaziorik jaso nahi ez baduzu, markatu X bat laukian ☐

Sustapen honen barruan jasotako datu pertsonalak Herritar Berri SLU (Portuetxe 23, 2. 20018 Donostia) eta Urruina distribution & services SL-en (Kale Nagusia 2 - 4, 48001 Bilbo) datu-base batean sartuko dira. Datuak guztiz konfidentzialak dira, datu pertsonalak babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko lege Organikoari jarraiki. Nolanahi ere, eskuratzeko, zuzentzeko, aurka egiteko edo ezereztzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzu. Horretarako, Herritar Berri SLU (Portuetxe 23, 2. 20018 Donostia) helbidera jo behar duzu.

bidaiari 005

2022ko urtarrila

Zazpi Haizetara
aldizkariaren 154.
zenbakia litzatekeena

AZALEKO ARGAZKIA:
Sergi Reboredo

ARGITARATZAILEA:
Astero.
Herritar Berri SLU.
Zazpi Haizetara
aldizkariaren lan
taldeak ekoiztua.

EDITOREA:
Eguzki
Agirrezabalaga

JATORRIZKO DISEINUA:
Grafik Sarea +
Artefakto

MAKETAZIOA:
Oiertso
Los Arcos Urbina

EGOITZA:
Portuetxe, 23 -2. A
20018 Donostia

HELBIDE ELEKTRONIKOA:
bidaiari@astero.net

TELEFONOA:
943 31 69 99
www.naiz.eus/bidaiari

LEGE GORDAILUA:
01361-2021

INPRIMATZEN DU:
Printek
Inprimategia.
Zamudio





06 PATAGONIAKO EREMU LATZEAN

Skorpions III ontzian Patagoniako eremu latz eta ezezagunenean barrena ibili gara, ia esploratu gabeko paisaia honetan kokaturiko glaziar ikusgarrien artean. Ez da edonolako ontzia, izotzean arazorik gabe nabigatzeko sendotutakoa baizik. «Familia giro» handikoa, gainera.



28 ILARGIKO MAHATSONDOAK

Lanzaroten izan gara. Sumendiak, gainazal beltza... Isiltasun eta hondamen eszenatoki xarmagarrian, mahatsondo artean.

22 «LEHOIAREN HAITZA»

Sri Lanka erdialdean kokatua, bakarti dirudi harkaitzak, desafiatzaile eta probokatzaile. Sigiriya da, "Lion's rock".



36 SAIOA, ELUR-MINA

Pirinioetako atean dago. Mendi-eskiaren zaleen bihotza da, baina baita mendizaleena ere. Elur-mina asetzeko mendi aproposa. Saioa da.



50 LARHUNGO TRENEAN

Errail zaharretan egindako azken bidaia egin dugu. 2024an ehun urte beteko ditu eta burdinbideak aldatzen ari dira. Apirilean, berriz martxan.



08 BIDAIA Villa del Casale 54 BERTATIK BERTARA: EGIN PLANAKI "Artea komikigintzan", Zama Doinuz Arindu jaialdia, Sistiagaren atzera begirakoa, Tanttakaren "Semea pixka bat motelago dabil soilik"... 56 HIRIAK MOTZEAN Budapest 60 MUNDUAN PASIERAN Orkako fiordoetan, sardinaz bila, Cosquer haitzuloaren erreplika, m+, museo berria Hong kong-en, Rhone glaziarra, estalita.



YADNYA KASADA

Tengger-en ofrendak Bromo sumendian

Iragan berri den urteko argazkirik oneneta-koen artean sartu du irudi hau AFP agentziak. Tengger tribuko kideak ageri dira argazkian, Bromo sumendiko kraterreara eskaintzak botatzen, Yadnya Kasada izeneko jaialdian. Urtero egiten dute festa, ekainean, Probolinggon, Java hegoaldean.

Arroza, frutak, barazkiak, loreak, ahuntzak, oilaskoak... Denetarik jaurtitzen dute mendiko zulora, betiere helburu bikoitzarekin: batetik, uzta onagatik Jainkoei esker ona adierazteko eta, bestetik, hurrengo uztak oparoak izan daitezen eskatzeko.

Hilabete irauten du jaialdiak eta Majapahit-eko printzesaren eta haren senarraren inguruko XV. mendeko elezahar batekin lotuta dago. Dirudienez, ezkondu eta gero, seme-alabarik ezin zutela izan ikusita, bikoteak jainkoei laguntza eskatu zien. Haien otoitzak entzun eta jainkoek 25 seme-alaba agindu zizkieten, betiere baldintza batekin: txikiena sakrifikatu behar zuten, nahitaez, Bromo mendira jaurtiz.

Kondairak dioenez, seme honek bere borondatez egin zuen salto sumendira, Tengger herriaren oparotasuna bermatzeko. Eta, harrezkero, ehunka tengger biltzen dira sumendiaren inguruko lur garaietan eskaintzak egiteko. Horietako asko gailurrera igotzen dira animaliak bizkarrean dituztela, sakrifizioak oparotasuna ekarriko die-lakoan. [J. KRISWANTO / AFP]



SKORPIOS III ONTZIA

Patagoniako eremu latzenean

Testua eta Argazkiak **Sergi REBOREDO**









Skorpios III-an Patagoniako eremu latz eta ezezagunenean barrena ibili gara, ia esploratu gabeko paisaia honetan kokaturiko glaziar ikusgarrien artean. Ez da edonolako ontzia, izotzean arazorik gabe nabigatzeko sendotutakoa baizik. «Familia giro» handikoa, gainera.



Puerto Natales, Txileko hiriburu Santiagotik airez lau ordura dagoena, munduko txoko australenetakoa da, eta bere hiriaren kanpoaldean herrialdeko hotel enblematikoenetakoa dago, Hotel Remota. Bere leihate izugarrietatik Ultima Esperanzako badiaren eta Balmaceda eta Serrano glaziarren postal izugarriak ikusten dira. Hotela diseinatzean German del Sol arkitektoak argi naturala duten espazio diafanoak jartzea erabaki zuen, barruan egonda kanpoan zauden sententzioa izateko baina babestuta sentitzearen erosotasuna ahaztu gabe; horregatik barnealdea egurrezkoa da eta negu austral gogorrei aurre egiteko termikoki behar bezala isolatutakoa.

Ardiak gordetzen zituzten Patagoniako estantzietan inspiratuta dago. U ireki formako hiru pabiloi ditu, zeintzuetan detaile txikiena ere zainduta



dagoen: bere aurrehispaniar dekorazioa, artilezko tapizak, ontziteria ingelesa, logeletako perutar kotoizko maindireak eta aire zabaleko sauna aparta. Hotelean era guztietako jarduerak eskaintzen dituzte; aipagarrienak, esaterako, zaldi ibilaldiak, Cueva de Milodón-era bisitak eta Torres del Paine Parke Nazionalen mendi-ibiliak egitea.

ONGI ETORRI ONTZIRA Hotel Remotatik iparraldera kilometro eska sera Puerto Kochifas dago, Skorprios III-a porturatzen den tokia. Ontzi horretan bisitatuko ditugu ia esploratu gabeko paisaia honetako glaziar ikusgarriak.

Ez da beste edozein ontzi bezalakoa, izotzean nabigatu ahal izateko sendotuta baitago. Bost ontzigain eta areto zabalak baditu ere, 90 bidaiarirentzako edukiera du, eta horregatik zerbitzua oso zaindua eta pertsonala da, ontzi-enpresa handien gurutza masifikatuen ilara luze eta estual-

Esploratu gabeko paisaiak, inoiz ikusi gabeko animaliak, izotz artean eta familia giroan ontzi handi batean aurrera egiteak eragiten duen zirrara, xarma berezia duten aterpe atseginak... Patagoniako eremu latz eta ezezagunengan barrena ibitzeko aukera aparta eskaintzen du Skorprios III ontziak.

**Hegoaldeko Izotz
Zelaiak milaka
urteko izotz masa
izugarri handi bat
dira. 17.000
kilometro koadro
dituzte, duela
20.000 urte baino
gehiago Lurrean
gertatutako azken
glaziaziotik iraun
dute eta Andeetako
gailurren bi
isurialdeetara
isurtzen dira**

dirik gabea. Hemen dena da familia girokoa. Horretaz arduratzen da "Mimi" Coñuecar, Skorpios enpresa sortu zuen Constantino Kochifas kapitainaren alarguna. 89 urte dituen eta ontzian 50 urte daramatzen andreak lanean tinko dirau eta ez du bidaia bakar batean ere kale egiten. Horietan, gainera, txango bakoitzean jaisten da guztia behar bezala dagoela egiaztatzeko. Luis Kochifas, bere semea, da "Skorpios III"-ko kapitaina eta harro azaltzen du aita hil eta hurrengo asterako Mimi jada berriro ontzian zebilela. «Bere bizi filosofia da. Ontzian hilko da, aita bezala», azaldu du Luisek.

HEGO PATAGONIAKO IZOTZ-ZELAIK Lau egun eta hiru gau emango ditugu nabigatzen artxipelago, kanal, uharte eta basoetan barrera; Patagonia latz eta ezezagunenean hamaika esperientzia sinesgaitz biziko ditugu. Gezurra dirudien arren, paraje hauetan ia ezinezkoa da beste gizaki batzuekin topo egitea. Lurrez, bere orografia zaila eta klima gogorra dela-eta, ia ezinezkoa da berau bisitatzea eta kanal hauetan nabigatzeko ez du balio edozein ontzik.

Hegoaldeko Izotz Zelaiak milaka urteko izotz masa izugarri handi bat dira. 17.000 kilometro koadro dituzte, duela 20.000 urte baino gehiago Lurrean gertatutako azken glaziaziotik iraun dute eta Andeetako gailurren bi isurialdeetara isurtzen dira. Argentinak naturaren altxor hori turistikoki errentagarri bihurtzen hobeto asmatu du, Perito Moreno buru duela, nahiz eta urteroko ia 500.000 bisitariak eremua izugarri masifikatzen ari diren.

Txilen, berriz, 48 izotz-mihietatik 42 daude, turistek noiz bisitatuko dituzten zain. Izan ere, gutxien ikertutako planetako eremuetako bat da hau. Gaur egun, glaziar hauetako gehienak atzera egiten ari dira, klima aldaketa dela-eta tenperatura igo delako eta prezipitazioak gutxitu direlako. Desagertzeko arriskuan daude, baldin eta gure bizi-ohiturak aldatu eta jasagarriago bihurtzen ez baditugu.

PUERTO NATALES ATZEAN UTZI DUGU Amarrak askatu eta ontzia mugitzen hasi da. Puerto Natales eta bertako etxe koloretsuak atzean geratzen doaz eta telefono mugikorraren estaldura-seinalea galtzen doa desagertzeraino. Lehenik Kirke mehargunea topatu dugu, eta ontzigainetik Patagoniako fiordoan landaredi hostotsua ikus dezakegu.

Uharte ñimiñoak utzi ditugu albo batera eta bestera, zeintzuetan haize bolada gogorren ondorioz zuhaitzek 45 gradutik gorako inklinazioa duten. Ia milimetrikoa da mehargune artean igarotzeko trebezia. Iluntzen ari du eta areto nagusian hiru platerako afari goxoa zerbitzatu dute. Bidaiariok elkar ezagutzen hasi gara.

Biharamunean Amalia glaziarren ondoan esnatu gara. Bidaia-koadernoko zerrendako handiena da. Hiru kilometroko izotzezko pareta du, 90 metroko altueratik gorakoa eta bertan izotz ugari desagertu eta hondartza formako bide ireki bat utzi du; hortik bisitariak erraz irits daitezke glaziarren horma parera. Inguruan begira dugu huemul familia bat, turisten joan-etorriari jaramon handirik egin gabe bazkatzen ari dena.

Animalia hori Andeetako orein autoktonoa da, desagertzeko arriskuan dago eta, hortaz, zaila da topatzen. Zortea lagun dugu. Txalupa pneumatikoak ontzi inudera itzuli gaitu eta ondoan dabilzkigu izurde austral ba=tzuk.

Eguna erritmo bizian doa eta ia postreak digeritu gabe El Brujo glaziarrera iritsi gara. Hemen ontzitik jaitsi eta ondoko arroken gainetik oinez joan behar da. Burrumba izugarria entzun eta glaziarraren burua bat-batean jausten ikustea ikuskizun itzela da. Baina mundu guztiak daki zer esan nahi duen horrek: glaziarra desizozten eta atzera egiten ari dela eta desagertzeko bidean dagoela.

Bidaiko plater nagusietako bat ondoren zerbitzatzen da, badia estu batean ontziz aldatu ostean. Constantino ontzi izotz-hauslera igo gara, Calvo fiordotik gertu dauden izotz-puska handien artean aurrera egiteko. Hemen bost glaziar kanalaren hondora erortzen dira era kontzentrikoan eta paisaia benetan ikusgarria da.

Lurralde honetan mendi gailur malkartsuekin kontrastean elurraren zuria ageri zaigu, bai eta itsasoko ur ilunen gainean izotz-puska handi distiratsu eta urdinak ere. Hiru ordu nabigatzen eman ondoren, saria dugu zain; tripulazioko kideek kristalezko edalontziak banatu dituzte bidaia- rion artean, "12a 30ekin" delakoa har dezagun; «hala deitzen diogu whis- kiak 12 urte dituelako eta izotzak 30.000 urteko historia», azaldu du irribarretsu kontralmiranteak.

FIORDO DE LAS MONTAÑAS DELAKOA, ALBOAN Biharamun goi- zean Fiordo de las Montañas delakoaren alboan esnatu gara, inguratzen duten mendien bista bikainekin. Izugarrizko abilezia erakusten duen ma- niobra bat eginda "Skorpions III"-a Alsina glaziarraren oinetan dauden arroka handi batzuen ondoan gelditu da. Zodiac-etan irteerarik gabeko kanal batean nabigatu dugu, izotzezko horma erraldoi bat aurrez aurre to- patu arte. Horma hori itsasoan amiltzen da. Izurdeak eta ubarroi mordoa ditugu alboan gure abentura honetan.

Ontzira itzuli gara hurbil daukagun Bernal glaziarrerako bidea hartzeko. Hemendik 30 minutuko paseoari ekingo diogu; ibilbidea bertako basoen eta turkesa koloreko ura duten urmaelen artean egingo dugu.

Bidaia-aren ginga arratsaldean aurrera eginda iritsi da, ontzia Angostura White delakotik hurbil gelditu denean. Oraingoan fauna ikusteko jaitsi gara ontzitik. Itsas otsoek, ubarroiek eta andetar kondor pare batek arre- taz begiratzen digute. Gizakiok datozen urteotan egiten dugunak baldin- tzatuko du, neurri handi batean, animalia horien biziraupena. Eta ez dirudi bide onean goazenik.

Azken afaria ikusgarria da. Denetarik duen buffeta: izokina, itsaski fres- koak, arkumea eta indioilarra, besteak beste. Eta, nola ez, Txileko ardo aparta, mahaikideak saltsa dantzatzera animatzeko eta bidaia aho-zap- ore onarekin amaitzeko. Hala bukatu da hegoaldeko izotz australen erreinura eginiko bidaia ikusgarri hau.

GIDA PRAKTIKOA

NOLA IRITSI

KLM eta Air Francek hainbat hegaldi eskaintzen dituzte astean Txileko hiriburu Santiagora, beren Amsterdam-eko eta Paris- CGD-ko "hub"-etatik. Punta-puntako hegazkinean, Boeing 787-9 "Dreamliner"-ean dira hegaldiok. Wi-fia du, eta bidaia eroso eskaintzen du, hezetan atmosferiko handiagorekin eta antzeko hegazkinek baino leihoko handiagoekin, zeintzuek argia erregulatzeko sistema elektronikoa duten. Gainera, material arinagoekin eraikia dago eta CO₂ isuri eta zarata gutxiago sortzen du horrela. Hub horiekin konexioa dute sei espainiar aireportuk. Eskaintzak: www.klm.es eta www.airfrance.es

NON LO EGIN REMOTA.

www.remotahotel.com. Ruta 9, Puerto Natales 6160000, Puerto Natales, Txile. Tel. +56 2 2387-1270 Hotel boutique honek landetxetako estiloa eta aldi berean berritzailea du bere beirate izugarriei, barneko igerileku, aire zabaleko jacuzzi eta janari ekologiko bikaina zerbitzatzen duen jatetxe-ari esker. Puerto Nataleseko aireportua bertatik 1,5 kilometrorara dago eta Punta Arenas, 240 kilometrorara. Hotelak inguruan egiteko jarduera-eskaintza du.

VILLA DEL CASALE

Teselen artea

Testua eta argazkiak **Xabier BAÑUELOS**

Mediterraneoan menderatzeko borrokan, Erroma etruskoei, greziarrei eta kartagotarrei aurrea hartzeko gai izan zen. Horretarako, Sizilia bere nagusitasunaren funtsezko pieza bihurtu zuen, eta, ondorioz, uhartean hiritargo fin eta aberats bat loratu zen, emaitza gisa sofistikazio handiko villa erromatarrek eraikitzea ekarri zuena. Piazza Armerina udalerrian dago adibide preziatuenetako bat: gizateriaren ondare izendatutako mosaikoak gordetzen dituen Villa del Casale.







Norbaitek pentsatzen baldin badu lehen bikiniak Micheline Bernardinik jantzi zuela 1946an, guztiz oker dago. Galde diezaietela bestela IV. mendeko emakume erromatarrei, zilborra eta euren gorputzetako gainontzeko zatiak inolako lotsarik gabe erakusten baitzituzten, adibidez, kirola eroso egin nahi zutenean; soil-soilik bularrak eta pubisa estaltzen zituzten. Gaur egungo edozein atleta modernoren pare janzen ziren kirola egiteko, non eta preskeski eguraldi hotzagatik nabarmentzen ez den Sizilian. Emakume horiek gimnastikako lehiaketetan ere irudikatu zituzten erromatarrek Villa del Casale domus bikaineko zoruan.

Kontuan hartu beharreko garaiko jatorri arranditsuko edozein egoitzetan gertatzen zen bezala, Villa del Casaleko mosaikoak egiteko ardura sortzaile trebeen ardura izan zen. Teselen arteko maisu anonimoek egiten zituzten mosaikoak, eta, lortu nahi zuten emaitzaren arabera, teknika bat edo beste erabiltzen zuten; opus tessellatum teknika xehetasunak bigarren mailan utzi eta eragin inpresionista handiagoa bilatu nahi zutenean; opus vermiculatum teknika lan figuratiboetan xehetasun handiagoa, fintasuna eta ñabarduren aberastasuna lortzeko; opus sectile teknika marmol pieza handiak tartekatzea erabakitzen zutenean.



Lanbidean maisu zirela argi utziz, Villa del Casaleko mosaikoak egin zituzten tailerretako langileek dotoretasun eta trebezia izugarria erakutsi zuten, tradizio klasikotik zein Afrika iparraldeko joera estilistikoetatik edanez.

Lanbidean maisu zirela argi utziz, Villa del Casaleko mosaikoak egin zituzten tailerretako langileek dotoretasun eta trebezia izugarria erakutsi zuten, tradizio klasikotik zein Afrika iparraldeko joera estilistikoetatik edanez. Irudi geometrikoak, gizakiak, jainkoak, animaliak, landareak, jarduera mundutar eta zerutiarrak naturaltasun osoz tartekatzen dira Villa del Casalen 3.500 metro koadroko hedadura hartzen duten maisulanetan. Pentsa, 50 gela baino gehiagoko horma zein zoruetan aurki daitezke mosaikoak. Emaizta, noski, bikaina da artistikoki, baina, horrez gain, Siziliako villako mosaikoak gure egunetara heldu den Erromatar Inperioko klase sozial aberatsen bizi estiloaren, unibertsoaren eta kosmogoniaren erakusle aparta ere badira.

ERROMATAR INPERIOAREN GAINBEHERAREN GARAIKO VILLA

Villa del Casale Sizilia barnealdean kokatuta dago, Piazza Armerina udalerrian, balio historiko eta monumental handiko bertako herrigunetik gertu. IV. mendearen hasieran eraiki zuten, III. mendean abiatutako Erromatar Inperioren gainbehera izugarriak eten txiki bat izan eta Mediterraneoko uharte handiena Mare Nostrum-eko merkataritza ibilbideen erdigune bilakatu zenean berriz ere. Garaiko nolabaiteko oparotasun ekonomikoari beste faktore bat ere gehitu behar zaio: aberatsak urbis edo hiri nagusietatik ihes egin eta ager edo nekazaritza gunetara joaten hasi ziren euren etxaldean ardura zuzenean hartzeko. Hori dela eta, villa ugari sortu ziren, zein baino zein arranditsuagoa.



VILLA DEL CASALE TESELEN ARTEA



Irudi geometrikoak, gizakiak, jainkoak, animaliak, landareak, jardura mundutar eta zerutiarrak naturaltasun osoz tartekatzen dira Villa del Casalen 3.500 metro koadroko hedadura hartzen duten maisulanetan. Erreportajea zabaltzen, “Emakumeak bikinian” bezala ezagutu ohi dena, benetan “Stanza delle Palestriti” (“Gimnasioaren gela”) deitzen bada ere. Villa del Casaleko mosaikoak egiteko ardura sortzaile trebeek ardura izan zen.





Testuinguru horretan, landa eremuko latifundio handi bateko erdigune izan zen Villa del Casale. Funtzio administratiboak zein ordezkariak arlokoak betetzen zituen egoitza batek eta erosotasun guztiekin hornitutako jauregi itxurako eraikin batek osatzen dute. Hainbat aukera aipatu izan badira ere, ez dago argi nor izan zen bertako jabea. Hori bai, tamaina, egitura, egitura eta dekorazioa ikusita, zalantzarik ez dago jabea jatorri oso altuko nobait zela, aristokraziako kidea edo agian baita Erromako senataria ere. Bada begirada are gorago jarri duenik ere: Marko Aurelio Valerio Maxentzio enperadorea bera. Hori bai, onarpen handieneko hipotesien arabera, honako hiru hauetakoren bat izan zen jabea: Lucio Aradio Valerio Proculo Populonio gobernadorea, Gaio Cenonyo Rufio Volusiano praefectus urbis-a edo azken honen seme Gaio Cenonyo Rufio Albino kontsula. Jabea edozein izanik ere, argi dagoena da ez zela txikikerietan ibili: berebiziko interesa erakutsi zuen gainontzeko guztien aurrean bere oparotasuna erakusteko.

Villa del Casale impluvium eran irekitako erdiko patio errektangular handi baten inguruan eraikitako elkarri atxikitako hainbat eraikinekin osatzen dute. Patioa peristilo batekin zedarrituta dago eta lorategi batekin inguratutako urmael apaingarri eder bat ere badu. Patiora zutabe jonikoen atrio batek azpildutako ferra formako beste patio monumental bitxi bat zeharkatuz heltzen da. Bertatik termetara ere sar daitezke, palestra biabsidial luze bat zeharkatuz. Termetan frigidarium, tepidarium eta caldarium klasikoak aurkituko ditugu; azken horretan, baita ur tinak eta izerdi bainuentzako aire berozko laconicum bat ere. Hipokaustoaren kontserbazio egoera ona ere aipatzeko modukoa da.

Patioaren iparraldean eta hego-ekialdean administrazio lanetarako aretoak, bisitarientzat logelak, sukaldea eta jangelak daude. Ekialdean, berriz, harrera egiteko gunea, abside erdizirkular batekin itxitako areto errektangular handi batek eta basilikaren espazio garden eta solemneak osatua, zeina patiotik 65 metroko luzerako eta 5 metroko zabalerako korridore luze batekin banatzen duen, abside banarekin azkenduta. Basilikaren eskuinera eta ezkerrean logela pribatuak, senitartekoen gelak eta zerbitzarienak daude. Hegoaldean, azkenik, beste eraikin multzo bat dago, kofadurek eta logela txikiek inguratutako aire zabaleko peristilo obal batekin osatua; estalitako triclinium baten patio gisa erabiltzen da peristiloa, hau da, hiru absideko areto baten patio gisa.

PUZZLE POLIKROMO IKUSGARRIA Baina zalantzarik gabe, villako aipagarriena bertako mosaikoak dira. Ez da harritzekoa, gure egunetara heldu den erromatar talentu teselatuaren adierazgarri bikainetakoak osatzen baitute. Domus-aren presentziaren berri XVIII. mendean izan zuten adituek, eta, XIX. mendean zehar, pixkanaka-pixkanaka eraikinen hondakinak eta mosaikoak azalarazten hasi ziren. Zenbait esplorazio partzial ere egin zituzten, baina 1950eko hamarkadan Gino Vinicio Gentili arkeologoa agertu arte ez zen aztarnategia sistematikoki hondeatzeko egitas-morik izan. Arkeologoaren ahaleginak ezusteko emaitza izan zuen, XII. mendean izandako uholde baten ondorioz buztinak estalitako –eta egoera bikainean gordetako– altxorren benetako balioa azaleratzen hasi baitzen.

Villa del Casaleko mosaiko multzotik zerbait nabarmentzen baldin bada, zalantzarik gabe, mosaikoen kontserbazio egoera bikaina da. Behin hori esanda, baina, mosaiko kopurua altua eta mosaikoen kalitatea eta edukia ere derrigor aipatu behar dira. Kolorezko zati txikiekin era guztietako giroak sortzen dira Siziliako villa ederrean, puzzle izugarri handia osatuz gainera. Puzzle polikromo horrek fantasia euklidearretara, motibo begetaletara eta errealismo izugarriarekin egindako animalien eta gizakien irudietara eramango gaitu. Bertatik paseatzeak eztanda estetiko paregabe batera eramango gaitu; lerro zuzenen, kurben, txirikorden eta korapilo salomonikoen abstrakzioetik, naturalismo gorenera. Erromatar panteoiko jainkoen bilakaera mitikoekin zein eguneroko jarduerekin egingo dugu topo, jolasetik kirolera, erotismotik ehizara, haur irudimenetik dantzara... doazenak.

“EMAKUMEAK BIKINIAN” Zalantzarik gabe, mosaikorik ezagunena lehen aipatu duguna da; hau da, “Emakumeak bikinian” bezala ezagutu ohi dena, benetan “Stanza delle Palestriti” (“Gimnasioaren gela”) deitzen bada ere. Bi izenon atzeko arrazoiketa agerikoa da; lehenarena, mosaikoan dozena bat emakume agertzen direla bikinian, eta bigarrenarena, ez gaudela hondartza bateko irudi baten aurrean, kirola egiten ari diren emakumeen aurrean baino. Hori bai, emakume kirolariona ez da inolaz ere Villa del Casalen aurkituko dugun aparteko konposizio bakarra; bata bestearen atzetik aurkituko ditugu lan bikainak, euren argitasun, adierazkortasun eta baita emozioak sortzeko gaitasunagatik ere harrituko gaituztenak. Jangelan dagoen “Ehiza handia” benetan da aipagarria; xehetasun izugarriarekin irudikatzen du Afrikako eta Asiako animalia basatien ehiza eta garraioa. Kontuan izan behar da animalia erroldoi basatiok benetan bitxiak zirela basapiztiekien egindako zirku ikuskizunak gartsu kontsumitzen zituzten erromatarrentzat. Agian, aipatu obran ikusten dira ondoen egileen arteko ezberdintasunak. Izan ere, hegoaldeko zatia bolumen gabea, ez hain landua den bitartean, iparraldekoan irudiak xehetasun, kromatismo eta sakontasun handikoak dira, mosaiko bizantziarretatik gertuago izanik.

Motibo mitologikoen artean, ezinbestekoa da triclinium-ean geldialdia egitea; bertan Herculesen hamabi lanak deskribatzen dira, guri bereziki “Haur ehiztarien gela” ikusgarria gustatu bazaigu ere. Bertan, besteak beste, txoriek tiratutako gurdien lasterketetan lehiatzen ari diren haurrak ikus daitezke, edo ahate eta erbiak jarraitzen ari direnak. Baina mosaikoen zerrenda amaigabea da ia: zaldiak, zezenak, hegaztiak, felidoak, antilopeak, Polifemo Ulisesen eskutik ardoa hartzen, bitxiz betetako andere handiak, gizonak adventus zeremonian, txakurrez lagundutako ehiztariak basurdeak lantzaz zulatzen... Bi maitale gazteren arteko eszena erotikoa samurra ere aurkituko dugu. Baliteke Cupido eta Psike izatea, iluntasuna atzean utzi eta gero euren maitasunari bide ematen, behin Psike bere ametsetik askatu eta hilezko bihurtuta Jupiterren laguntzari esker Olinporen anbrosia dastatu eta gero. Bien maitasunetik jaio zen Voluptas, plazeraren espiritua, sexuala izateko beharrik gabe edertasunaz gozatzeak ematen digun atsegina sortzen diguna. Zalantzarik gabe, Villa del Casale ikusgarrian gordeta aurkituko dugun edertasuna.

GIDA PRAKTIKOA

BISITA

Gutxienez, ordubete beharko dugu Villa del Casale ikusteko.

Kanpoan termak, sarrerako atrioa eta atrio obala aurkituko ditugu. Bisitaren gainontzeko denbora barrualdean emango dugu, eta, pasarela batzuei esker –basilikan salbu–, mosaikoak altueratik ikusi ahal izango ditugu, ikuspegi bikainarekin eta maisulanok zapaldu beharrik gabe.

NOLA HELDU

Piazza Armerina udalerrian dago Villa del Casale, herrigunetik bost kilometrora. SP15 errepedea hartuta, 10 minutu eskaseko bidaia da. Udan bakarrik dago garraio publikoa, autobus bat zehazki.

WEBGUNEAK

Bisita egunen, ordutegien eta prezioen gaineko informazio guztia honako helbide honetan aurkituko dugu: <https://www.villaromanadelcasale.it> (italieraz soilik). Bertan, villari buruzko gida bat ere aurkituko dugu PDF formatuan, italieraz, ingelesez eta frantsesez. Bisita gidatu bat egiteko gidari ofizialen zerrenda ere aurkituko dugu.

Sigiriya

«Lehoiaren haitz» enigmatikoa



ArgazkiaK: Ishara S. KODIKARA

Sigiriya du izen ofiziala, baina “Lion's rock” (Lehoiaren haitza) izenarekin ezagutzen da. 200 metroko altuera duen harrizko harkaitza da, harkaitz erraldoia. Sri Lanka erdialdean —zehazki, Matale barrutian— kokatua, bakarti dirudi harkaitzak, oso bakarti, desafiatzaile eta probokatzaile, landaretza joriaren erdian, lorategiz inguratuta.





SIGIRIYA «LEHOIAREN HAITZ» ENIGMATIKOA





Antzinako hiri-plangintzaren lehen adibide-tzat hartu izan dute historialariek sarri. Izan ere, Kashyapa erregeak (477-495) Sigiriya aukeratu zuen bizitzeko zein gobernatzeko. Gotorleku bat eraiki zuen haitzaren goialdean, eta mazelak kolorez apaindu zituen. Gainera, pasabide bat eraikitzeko eta harrian lehoi bat zizelkatzeko agindu zuen. “Lion’s rock” multzo arkeologikoa herrialdeko kulturaren eta historiaren ikur berezi bihurtu da, eta, aldi berean, erakarpen turistikoko interesgarri bertigoari aurre eginez jakin-mina asetzeko prest dauden milaka turistentzat. Jakina, Kashyapa erregeak Sigiriya harkaitzaren posizio estrategikoagatik aukeratu zuen, erasoetatik defendatu eta etsaiak urrutitik kontrolatu ahal izateko; urrutitik eta talaia natural pribilegiatu batetik. Gailurrak eskaintzen duen 360 graduko panoramikak, zaintza eta defentsarako gotorleku bikain bilakatzen du Sigiriya.

Baina Lion’s rock ez zen gotorleku hutsa. Miniaturazko hiri bat zela esan daiteke, hiru kilometroko zabalera eta bosteko luzera zituen hiri txikia. Bost sarbide zituen, bost ate, eta gotorlekua, jauregia eta zisterna-sistema antolatua. Inguruan, lorategiak eta harresiz babes-tutako lubanarro bat ere gehitu zuten, gotorlekua are seguruagoa bilakatzeko.

Hain zuzen ere, Sigiriyaen ikur berezienetakoak lorategiak ziren, batik bat urez inguratutako lursail handia, konplexu nagusira lau kanalen bidez komunikatutakoa. Horrez gain, inguruko erreketako urez hornitutako igerileku estuak ere bazituzten. Sigiriya lorategiak Asiako zaharrenak dira egun.

Gaur egun “Lion’s rock” haitzera hurbiltzen direnek lorategiak hainbat terrazatan banatzen dituen kareharritzko eskailerarekin egiten dute topo. Eskaileroak, harrian zizelkatutako lehoi-atzapar erraldoien artean gorantz abiatzeko gonbita egiten duten sarbide deigarria osatzen dute. Bertatik haitz hegalean iltzatutako metalezko eskaileretara iristen dira bisitariak. Bidean, duela 1.500 urte inguru egindako pinturak ikusi ahal izango dituzte goiko jauregira sartzeko pasabidearen paretan. Margolanon esanahi zehatza ez da ezagutzen, baina hainbat teoria daude. Batzuek diote margoetan agertzen diren don-tzeilak erlijio-errituetako protagonistak direla, baina, beste batzuek, aldiz, uste dute irudietakoak erregearen emazteak direla.

Hurrengo eskailera metalikoak igo ondoren –horma bertikalera ainguratutakoak–, azkenean, gailurrera iritsiko da bisitaria; hau da, jauregi zaharraren hondakinak dauden tokira. Bertara iristen denak bidean egindako esfortzuaren ordainsaria jasoko du: 360 graduko panoramika zoragarria. Puntu horretatik argi eta garbi hautematen dira Sigiriya harriaren tamaina, beheko lorategi ikusgarrien hedadura eta harkaitzaren bakardadea inguruko lautadaren erdi-erdian.





Ilargiko mahatsondoak

Testua **Fernando ALONSO** Argazkiak **F.A.** eta Getty Images

Ez gara ilargian sekula izan, baina Lanzarotera gerturatzean ezin da harekin alderatzea saihestu. Sumendiak, gainazal beltza... magma izandako ibaiak zepa eta malpais paisaia bilakatuta. Isiltasun eta hondamen eszenatoki xarmagarrian, sakonunetik azaleratzen diren mahatsondo hosto berdeek Lurrera itzultzen gaituzte, ardo zuri botila on batekin.





L

anzarote uharteak ez du beti izan egungo ilargi itxura. Timanfaya sumendiaren erupzio handia 1730. urtetik 1736. urtera izan zen. Erupzioaren aurretik, Lanzarote lur oso emankorra zen, Kanaria uharteetako aletegia, hain zuzen ere. Sei urteko erupzio haren magma uholdeek eta errautsek irlaren herena estali zuten, lurrean eta biztanleen artean triskantza eta hondamena eraginez.

Hala ere, nekazari conejeroek ez zuten etsi, eta zepa eta errauts azpiko lur begetala bilatzeari ekin zioten. Hondakin bolkaniko geruza horri rofe esaten diote. Zenbait lekutan bost metroko sakonera izan dezake. Rofe hori zeharkatu eta zerealak landatu zituzten berriz. Alferrik. Orduan, mahatsondoak landatzea otu zitzairen. Kanarietako beste uharteetan mahatsa landatzen zuten jada; Lanzaroten, oster, ez, berezitasun klimatologikoen-
gatik. Haatik, rofe artean, helburua lortu zuten, eta Lanzaroten ere mahatsondoak erroto ziren.



Horrela hasi zen Lanzaroteko mahasgintza heroikoa. Sakonuneak zula-
tzeari ekin zioten. Konoaren hondoan mahatsondo kimuak landatu zituz-
ten; eta, haize zakarretatik babesteko, ingurumarian harresi txikiak
altxatu zituzten.

Paisaia aldatu eta inguru erakargarria sortu zen. Lanzaroteko zeru urdin
sakonaren azpian, mahatsondoen brotxakada berdez marraztutako ilargi-
orografia beltza izugarri ederra da. Edertasun sendo eta bitxia, non Ilargi-
ko ardo urri hori ekoizten den.

Lanzarotera gainerako uharteetara baino beranduago iritsi zen maha-
sgintza; alta, egun, bertako malvasia bolkanikoa uharteetako ardorik bere-
ziena da, eta, agian, kalitate handienekoa.

Alvaro Novo Bilboko Zarate jatetxeko sommelierrak dioenez, Lanzaroteko
ardogintza paregabea da: «Hango nekazariak konturatu ziren zepa azpian
lur emankorra zegoela eta geruza hori zulatuz eta sakonuneak eginez

Lanzaroteko mahasgintza heroikoa hasi zenean, inguru erakargarria sortu zen. Sakonuneak zulatu, Konoaren hondoan mahatsondo kimuak landatu eta, haize zakarretatik babesteko, ingurumarian harresi txikiak altxatu zituzten. Zeru urdin sakonaren azpian, mahatsondoen brotxakada berdez marraztutako ilargi-orografia beltza ederra da. Edertasun sendo eta bitxia, non Ilargiko ardo urri hori ekoizten den.





Lanzaroten mahatsondoak edozein tokitan aurki daitezkeen arren, hiru dira ardogintzaren gune nagusiak. Ezagunena, eta paisaiarik bereizgarriena duena, La Geria da, erreportajea zabaltzen duen argazkian ikus daitekeena. Lerroon ezkerrean, berriz, Antonio Suarez bodegaren irudia.

mahatsondoak landa zitezkeela». «Orduan –jarraitu du–, Kanaria uhartetan dagoen ohiko mahats barietatea landatzeari ekin zioten; malvasia, hain zuzen ere».

Madeiratik ekarritako mahats mota bat da malvasia. XV. mendean Kanarietara heldu zen. Barietaterik zaharrenetarikoa da, Asian du jatorria eta Peloponeso hegoaldean zegoen Monenvasiako portutik hartu zuen izena. Mediterraneokoa den arren, ederki egokitu zen Kanaria uharteetan.

XV. mendean, Gaztelako Koroak Kanaria uharteak militarki konkistatu zituen, eta haien kokapen estrategikoari esker, Europa, Afrika eta Amerikaren arteko zubi bihurtu ziren. Garai hartan, Kanarietako malvasia ardoa produktu komertzializatuenetariko bat izan zen; batez ere, azukre-kanaberaren gainbehera hasi zenetik.

Gauzak horrela, Kanarietako ardo ekoizpena handitzen joan zen eta XVI. mendean esportazioak Ingalaterra, Flandria eta Hanburgoraino ailegatu ziren; baita Ameriketako eta Afrikako espainiar eta portugaldar kolonietaraino ere. Garaiko kronikek diote itsasgizonen artean oso preziatua zela, eta Londresen mahaletako erregea. Shakespearek gustuko omen zuen, eta hiru idazlanetan “canary wine” aipatzen du.

Geroxeago, Espainiarekiko gatazka komertzialengatik, Ingalaterrak kanariar ardoa kontsumitzeari utzi zion, Madeirako ardoaren mesedetan. Horrek artxipelagoko ardogintzaren gainbehera ekarri zuen.

**Malvasia
bolkanikoa
malvasia
aromatikoaren eta
marmajueloaren
arteko gurutzatzea
da, eta Lanzaroten
bakarrik hazten da.
Mahats zuria eta
txikia da; bere
lurrina, sakona
eta dentsoa
– terpenikoa– eta
azidotasun maila
estruktura onekoa**

MALVASIA BOLKANIKOA Aitzitik, eta Timanfayaren erupzioaren ostean, Lanzaroten mahatsondoak landatzen hasi ziren.

Inguru arrotz batean, errauts eta labazko lurrean, euririk gabe, izugarrizko haizeteekin... horien guztien kontra borrokatuz, Lanzaroteko nekazariak aurrera atera zuten euren malvasia bolkanikoa. Oso mahats berezia, oso ardo berezia ekoizteko. Artxipelago osoko upategirik zaharrena Lanzaroteko El Grifo da, eta 1775. urtetik ardoa ekoizten ari da tai gabe.

Malvasia bolkanikoa malvasia aromatikoaren eta marmajueloaren arteko gurutzatzea da, eta Lanzaroten bakarrik hazten da. Mahats zuria eta txikia da; bere lurrina, sakona eta dentsoa –terpenikoa– eta azidotasun maila estruktura onekoa. Ezaugarri horiek aroma bereizgarriak lortzea ahalbidetzen dute, ardo zuri klasikotik haragoko ardoa lortuz. Batez ere, ardo zuri lehorrak ekoizten dira, baina baita erdigozoa, gorria eta beltza ere. Ardo apardunak ere egiten dira. Honen harira, Alvaro Novo sommelierak azaldu digu barietate horrek azukrea oso ongi kontserbatzen duela, eta ardo gozoa ematen badu ere egun jendeak ardoa lehorra ekoitzi nahi duela, leku gehiagotara iristeko aukera izan dezan. «Ardo gozoak aukerak asko murrizten ditu».

Mahats berezi hau Timanfayan izandako laba emisio konoen inguruetan landatzen da. Erupzioaren hondakinek –rofe, lapilli, picon– 5.000 hektarea baino gehiago hartu zituzten. Eszenatoki horretan primeran egokitu ziren mahats berezi horiek; izan ere, ur asko jasotzen badute herdoildu egiten dira, eta atmosfera lehorrean ardo aukera zabala lor daiteke.

Mahatsondoak hiru bat metroko diametroko eta sakontasun ezberdinetako zuloetako hondo konikoan landatzen dira, lur begetalean. Inguruan, haizetik babesteko, harri beltz bolkanikoz eginiko harresi txikiak jartzen dira.

Lanzaroteko nekazariak deskubritu zuten errautsen hondarrak oso onak zirela hezetasuna mantentzeko. Beraz, mahatsondoa behin landatuta, lurra rofez estaltzen dute. Horrek gaueko ihintza filtratu eta mantenduko du, landak aprobeitza dezan. Lurrunketa ekiditen da eta lurra bera ere babesten da higaduraren kontra. Gainera, errauts bolkanikoek eguneko beroa gauerako gordetzen dute, azukrearen maila igotzen eta, ondorioz, ardoaren alkoholaren graduazioa.

LA GERIA Lanzaroten mahatsondoak edozein tokitan aurki daitezkeen arren, hiru dira ardogintzaren gune nagusiak.

Ezagunena, eta paisaiarik bereizgarriena duena, La Geria da. Uhartearen erdigunean, Timanfayako Parke Nazionaletik gertu, Yaiza eta Tías udalerriek osatzen dute. Preseski, gune honetan hasi zen Lanzaroteko ardogintza. Bertan hondar bolkaniko geruza oso lodia da eta zenbait lekutan bost metroko sakonera ere badu. Horregatik zuloak sakonagoak dira eta haien arteko espazioa zabalagoa. San Bartolome eta Uga herrien arteko errepidean aurki eta bisita daitezke upategi batzuk.

Lanzaroteke bigarren ardo gunea apurtxo bat iparralderago dago. Zabalena da eta hango rofe geruza meheagoa da, asko jota metro batekoa. Horregatik, zuloak baino, zangak egiten dituzte. Tías, Masdache, San Bartolome eta Tinajo herriak daude inguru horretan.

Ye-Lajares da hirugarren ardo gunea. Iparraldean dago, Haria eta Te-guise artean. Produktibitate eskasagoa du. Azpimarratzekoa da munduko mahats-bilketarik goiztiarrena duela, uztailean egiten baita.

«Malvasia bolkanikoak kutsu mineral berezia du –zehaztu du Alvaro Novok–, ahoan azidotasun ukitua uzten duena. Arrainak ahoan uzten duen koipea ederki garbitzen du. Gatz ukitua ere badauka, alisio hai-zeak ekartzen duen itsasoko hezetasunari esker. Edozein arrain edo itsaskirekin hartzeko primerakoa da; ostrekin, antxoekin, atunekin... lupia, zapo, erreboilo edo abakando entsaladekin... Bakailaoarekin ere ba, noski».

«BRUT NATURE» Malvasia bolkanikoak hori guztia baino gehiago eman dezake. Duela hiru hamarkada El Grifo upategian ardo apardunak egiteari ekin zioten. Kasualitatez gertatu zela esan daiteke. 1986. urtean malvasia ardo erdi-lehor botila batzuen kortxoak suzirien gisan ateratzen hasi ziren. Ezustekoa izan zen. Halabeharrez, ardoa irakiten hasia zen. Hiru urte geroago, honakoa ondorioztatu zuten: malvasia bolkanikoa ardo aparduna ekoizteko aproposa zen, botilan bertan bigarren irakinaldi baten bidez; alegia, era klasikoak ezartzen duen moduan. Beraz, 1989. urtean El Grifok lehenbiziko brut nature etiketatu zuen.

Ardo apardun hau bakana da kanariar artxipelagoan. Laru kolorekoa da (hori oso argi bat), burbuilak finak dira eta adituek diote fruta hoz- kirri eta lore zuri aroma daukala; sendoa eta garbia. Atseгина da ahoan, freskoa eta dotorea.

NAHIKO EZEZAGUNAK Alvaro Novok dio malvasia bolkaniko ardoak nahiko ezezagunak direla Euskal Herrian; batez ere, uharteetan bertan kontsumitzen direlako; «dena den, hemen ere aurki daitezke, El Grifo edo Los Bermejos kasu».

Azken horiek Bergarako Txomin Zubeldia banaketa-enpresak saltzen ditu. Enpresa banatzaile horretako Koro Bosquek urte asko daramatza Lanzaroteke ardoak Euskal Herrira ekartzen. Novoak esaten zuen moduan, Bosquek ere nabarmentzen du malvasia bolkaniko ardoak urriak eta ezezagunak badira ere, gero eta gehiago sartzen ari direla gurean; «sartzen direnean, geratu egiten dira, oso onak direlako». «Hemen lehorra saltzen da gehien –adierazi digu–, baita erdi-lehorra ere. Apur- txo bat garestia denez, batez ere, erdi edo goi mailako jatetxeek eska- tzen dituzte, baina dendetan eta zenbait tabernatan ere badaude».

Lanzaroteke malvasia bolkaniko ardo bakan eta preziatua Euskal He- rrian ere plazer handiz goza daiteke, Ilargia gogorarazten digun lurralde-dera hegan egin behar izan barik.

GIDA PRAKTIKOA

ARDOAREN IBILBIDEA

La Geria Lanzaroteke hego- mendebaldean dago, Yaiza udalerrian, Timanfaya Parke Nazionala mendebaldetik inguratuz. LZ-30 errepidean, Mozagako Nekazariaren Monumentutik Uga herrira bitartean, daude Lanzaroteke Ardoak Jatorrizko Deitura duten 21 upeltegietako gehienak. Ibilbidean upeltegiak ikus daitezke, bata bestearen atzetik; hala nola Rubicón, La Geria, El Grifo, Stratvs eta Los Bermejos. Museo txikiak eta ibilbide gidatuak dituzte, tokiko enologiarekin zerikusia duen guztia hobeto ulertzen laguntzeko.

TIMANFAYA

Timanfayako Parke Nazionala 1974an sortu zen, eta 50 kilometro karratu hartzen dituen eremu bolkaniko babestua da. Bisitak sumendien arteko autobus-zirkuitu baten bidez egiten dira, eta bertako bitxikeriak azaltzen dituzte.

CESAR MANRIQUE

César Manrique artistaren arrastoa oso nabaria da. Natura eta artea elkartu zituen sorkuntza-espazio berri bat sortuz. Bere Museo-Etxea Hariako palmondo-sail bikain baten erdian dago. Bertan ikus daiteke artistak bizitzako azken urteak non igaro zituen eta lan egiteko erabiltzen zuen tailerra. Bestalde, César Manriqueren Fundazioa Tahíche herrian dago.



Saioa, elur-mina

Testua eta argazkiak **Andoni URBISTONDO**





Udazkenak lehen kolpeak jotzen dituenen hasten dira mendizaleak botak garbitzen, kranpoiak zorrozten, eskiei argizaria ematen. Elur-mina da, elur gogoa. Kosta zitzaion, azaroan, gurera iristea, baina iritsi zenean goxo-goxo geratu zen gurean hiru aste luzez. Orduan iratzarri ziren elurzaleak, mendi maldetan pilatutako elur geruza handia dastatzeko gogoz. Horretarako ezin aproposagoa da Saioa, Pirinioetako atean. Mendi-eskiaren zaleen bihotza da, baina mendizaleena ere bai. Hori bai, erraketekin joatea komeni da.

Saioa Baztan ibarreko hegoaldeko mugan dago, Esteribar eta Ultzama ibarren artean. 1.418 metro ditu eta inguruko mendi garaiena da, oso ezaguna Euskal Herriko mendizaleentzat. Baztandarrentzat, dena den, Hauza da mendi kuttuna, Izpegi lepotik gertu. Saioa baino apalagoa da garaieraz, 1.305 metro, baina piramide dotorearen itxura dauka bailaratik. Saioa, aldiz, mendi etzan samarra da Baztan aldetik begiratuta. Iruñerriko mendizaleei galdetuz gero, laudorioak baino ez dituzte izango Saioa mendiari buruz galdetuta. Iruñetik bertatik dotore ikusten baita zuriz janzten denean. Nafarroako hiriburutik goiz- edo egun-pasa polita egin daiteke Saioara, bai Belatetik, baita Artesiaga lepotik ere.

Bi ate horiek dira erabilienak. Belatetik Saioara ordu pare bat daude oinez. Artesiagatik, lan erdia. Azaro bukaeran metro pasako elur geruza pilatu da Saioa belartsuan, eta Artesiagako lepotik abiatzea da aukera onena. Baztango Irurita eta Añamendiko Esteribar bailara lotzen ditu Artesiaga lepoak. Eugi herri ikusgarria, hain zuzen ere. Mila metro ditu lepoak, ia-ia. Eguraldi petralak ordu batzuetako atsedena eman du, eta mendate gaina autoz eta furgonetaz betea dago. 30-40 ibilgailu bai, gutxienez. Go-goari mugarik ezin baitzaio jarri.

Asko eskiekin hurbildu dira. Foka larruak prestatu, eta pista elurtuan barena, suabe-suabe, gora. Azken ordu erdia tentea da, malda piko samarrak ditu, baina vuelta maria teknika ezagunari esker, arazorik ez (maldan egiten den 180 graduko norabide aldaketa da teknika hori). Gailurrean arnasa pixka bat hartu, sabela gozatu, eta behera, ziztu batean. Mendiko es-



Saioa mendi proposa da udazkenean elur-mina, elur gogoa, asetzeko. Pirinioetako atean, mendi-eskiaren zaleen bihotza da, Euskal Herriko mendi-eski gune onenetakoa. Eta horrek, noski, eragina izaten du errepidean.

kiaren ezaugarri garrantzitsuena da gailurretik autoaren erosotasunera oso tarte txikian irits zaitezkeela.

Saioa da Euskal Herriko mendi-eski gune onenetakoa. Ez dauka elur-jausi arriskurik, ordubete pasatxoan joan-etorria egin dezakezu autotik gailurrera, eta sasoitsu dagoenak bizpahiru saio egiteko aukera dauka. Mendi-eskiaren zale askok egiten dute hori; ez pentsa kasu bakanak direnik. Saioa mendiak, gainera, igoera eta jaitsiera zenbait lekutatik egiteko aukera ematen du. GR 12 mendi-bidetik gora, bata, eta Xuriain eta Saioa arteko Sagardegi lepoan barrena, bestea.

Gailurrean Belatetik barrena igo diren eskiatzaile batzuk daude, baina Ultzama eta Baztan arteko bailarak banatzen dituen lepo horretara bueltatzea nekoso samarra da, sarri foka larruak jarri behar direlako, aldapan gora tarteak gainditzeko.

ERRAKETEKIN BUELTA EDERRA Mendiko eskiekin trebea ez denarentzat bada aukerarik: erraketak. Mendiko botekin ere egin dezakezu bidea, baina metro inguruko geruzarekin ernegatu eta porru eginda bukatzeko arriskua dago, eta azkar, gerriraino hondoratuko baitzara pauso bakoitza eman ahala. Aukera onena, erraketak. Erraketekin zentimetro batzuk hondoratuko zara, baina bidea ondo egiteko moduan, betiere. Askok geure buruari noizbait egin diogun galdera da zergatik hondoratzen ote garen hainbeste elurretan mendiko botekin, erraketekin nahiko gutxi, eta eskiekin batere ez. Erantzuna, honatx: Mendiko botekin, elurraren gainean egiten den indarra elurrari transmititzen zaio zuzenean (norberaren pisua), eta hondoratu egiten gara. Eskiarekin, edo erraketekin, kontaktualazalera handitu egiten da, indarra, eskiatzailearen pisua, eskian edo erraketan banatzen delako, eta elurraren gaineko presioa gutxitu. Ondorioz, eskia edo erraketa ez dira hondoratzen.



Erraketekin, dena den, jipoi handi samarra har dezake gorputzak. Maldan gora nahiko ondo egiten da bidea; zer esanik ez, aurretik erraketekin ibili direnek utzitako arrastoari jarraitzen badiogu.

Elur paisaiek xarma handia dute. Lasaitasuna, patxada, isiltasuna transmititzen dute elur parajeek, eta soinu bakarra erraketena da, elurretan sartzen denean, klixk-klixk. Eskiatzaileak biziago doaz, azkarrago irristatzen baitira. Bitxikeria moduan, snow taularekin igo den eskiatzaile pare bat ere egurrean. Igotzeko taula bizkarrean, eta erraketak oinetan. Jaisteko orduan, hori bai, gozamina haientzat, elur potolo eta krematsuarekin.

GR-12AN BARRENA Artesiagan gora, lehen 10-15 minutuak GR-12an barrena egiten dira. Eroso. Lainoa egonez gero, adi ibili behar da seinale batera iritsi arte. Pistatik aurrerantz, Belatera iritsiko garela erakusten du seinaleak. Atzerantz, etorri garen lekura, Artesiagara. Puntu horretan maldan gora egin behar da, eta malda handia samurtzeko 180 graduko bihurguneak egin. Ordubete eskasean gailurrean gaude. Lainoa goian, baina haize handirik ez, eta hotza ere jasateko modukoa. Eskertzekoa, Saioa ezagutzen duenak bai baitaki mendi hura zer baita, mendi haizetsua eta hotza dela oso.

Eta autora bueltan komeriak. Beste bide bat aukeratu nahi, toki berberetik ez bueltatzeko. Erabaki okerra. Hasieran eski taulen eta erraketen arrastoak bai; handik gutxira, batere ez. Malda handia bada, erraketak gehiago hondoratzen dira, eta pauso pare bat emate hutsa penitentzia latza. Bastoiarekin elur geruza neurtzeko astia ematen du, atsedean tartetxo batean. 70-80 zentimetro bai, gutxienez. Oso kostata, GR-12 mendiko pistara iristen da bueltan mendizalea, eta handik, ordu erditxo batean, autoaren patxada. Ia lau orduko buelta, normalean oinez bi pasatxo direnean. Elur-minaren keriak.

GIDA PRAKTIKOA

KOKAPENA

Saioa Baztan, Ultzama eta Auñamendi bailaren mugan dagoen mendia da, inguruko garaia 1.418 metroekin.

Belate eta Artesiaga mendateetatik abiatzen dira igoera gehienak. Pirinioetako lehen gailur handia dela esan daiteke, Pirinioetako atea.

NOLA IRITSI

Belate Baztan eta Ultzama banatzen dituen mendatea da.

Gipuzkoatik Irundik Iruñera daraman autobideak zeharkatzen du. Artesiaga mendateak Irurita (Baztanen) eta Eugi (Esteribarren) lotzen ditu. Irurita Elizondora bidean dago; Eugi, Zubirin gora. Zubiri Iruñetik 25 kilometrora dago.

EZAUGARRIAK

Mendi belartsua eta haizetsua da Saioa, oso ezaguna Iruñerriko mendizaleentzat, Nafarroako hiriburutik ondo ikusten delako zuriz janzten denean. Igoera erraza du, bai Belatetik, baita Artesiagatik ere. Neguan mendiko eskiaren zaleen paradisia da, ordu pare batean grina apaltzeko aukera ematen baitu.

EKUADOR

Txango bat planetaren erdigunean

Testua Urtzi URRUTIKOETXEA Argazkiak U.U eta Getty Images

Hego Amerikako herrialdeetan txikienetakoa da, baina ezin ahaztu, kontinente erraldoi batez ari garela: Iberiar penintsularen erdia da, azaleran, Ekuador. Quito hiriburuan hasi eta amaitzen den ibilbide honek lurralde liluragarri honen bazterrik berezienetara garamatza, Andeetatik Amazoniara, lurralde garai lehor eta hotzetatik eremu tropikal euritsura, eta atzera ere gora, kitxua herrien bideetan barrena.









Kontinenteko beste edozein herrialdetan hainbat aste beharko lirateke antzeko ibilbide bat egiteko, seguru asko barne hegaldiren batekin eta ibai eta ibaiadarretan barna txalupaz hainbat ordutako bidaia eginda. Guk, berriz, Galapago uharteetarako bidean, egun gutxi batzuetan geldialdia egin genuen gure planetaren erdiguneko lerroaren herrialdean, irletaraino joan eta kontinentea ez bisitatzea pena zelakoan, bisita labur batean izanda ere.

Haran baten luzeran, 2.800 metrora dagoen hiria da Quito, Latinoamerikako beste askoren antzera, mendien magalean hazi diren auzuneek itxura zirraragarria ematen diote eremu urbano guztiari. Behean, hiri zaharrean murgilduta, berriz, barrokoaren altxor batekin egiten duzu topo.

Inken Tahuantinsuyu hiriburuaren gainean eraikia, XVI. mendean, Gaztelako hirien egituran, bere plaza eta eraikin erlijiosoekin. Ez, alferrik,





**Natura, kultur ondarea,
jende atsegina, hiri
zaratatsu eta
jendetsuak, herrixka
lasaiak... Hego
Amerikako
herrialdeetan
txikienetako izan
arren, Ekuadorren
eskaintza zabala eta
anitza da
kanpotarrentzat.**

**Chimborazo
erraldoia da begien
bistan agertzen
den hurrengo
mendia.
Herrialdeko
handiena da, 6.267
metro ditu eta ia
ekuatorean egonik,
Lurraren
erdigunetik
urrunen dagoen
lekua da planeta
osoan.**

Unescoren Munduko Ondareen zerrendan sartu zen lehen hiriburua da Quito. Mendebaldera, teleferikoak Pichincha sumendiraino igotzeko aukera ematen du.

Bazterrotan falta ez dena, izan ere, sumendiak dira; hiriburua utzi eta gutxira ulertzen da zergatik izendatu zuen Alexander von Humboldt "sumendien etorbidea" Andeatako goi-ordekan doan 200 kilometroko tartea, Quitotik hegoalderanzkoa. 44 dira guztira bidearen alde batera eta bestera dauden sumendiak, horietatik 15 inguru aktiboak dira. Cayambe, Antisana, Iliniza Sur... ikuspegi ikusgarria da bidearen alde batera eta bestera, Pazifikokoaren edo Amazoniaren artean harro jaikita baina, zalantzarik gabe, Cotopaxiren tontor koniko elurtua da indar berezienarekin altxatzen nabarmentzen dena, 5.897 metroko garaieran. Aktiboa den sumendietako bat ere bada; bost urte baino ez dira azken erupziotik, eta parke nazionalako arduradunek jakinarazten dute azken orduaren berri. Errepide nagusitik urrundu eta Cotopaxiren magalean egindako bidea liluragarria da erabat, beti kondorra zelatan dugula.

AZOKA INDIGENAK Goi-lautadako errepide nagusirako itzulerak Pujili herrian harrapatzen gaitu, eta zorionekoak gara, azoka eguna baitute. Herriko merkatuan eta inguruko kaleetan ortuariak eta bestelako produktuak daude salgai igandeetan eta asteazkenetan; inguruko herri indigenetatik etortzen dira goizean goizetik, eta topagune garrantzitsu bihurtzen da herria. Pujiliraino salgaiak eramaten dituzten herri horietako batzuk igaro ditugu mendian gora doan bidean. Artzainak eta llamak ere ageri dira. Mendebalderantz joanda, bidea Pazifikora jaitsi aurretik, Quilotoako sumendiaren krater ikusgarria bisitatzeko aukera dago. Orain artekoak baino tontor apalagoa da (ia 4.000 metroan dago, edozelan ere, baina goi-lautadan ibilita xumeagoa dirudi), baina arnasa kentzeko ikuspegia eskaintzen dute aintzira biribilera ematen duten begiratokiek.

Sumendien etorbidera itzulitakoan, Chimborazo erraldoia da begien bistan agertzen den hurrengo mendia. Herrialdeko handiena da, 6.267 metro ditu eta ia ekuatorean egonik, Lurraren erdigunetik urrunen dagoen lekua da planeta osoan. Bidean aurrera segi liteke Cuenca hiri ederrerraino (trenegitea ere aukera paregabea da), baina Chimborazoko ikuspegiaren ondotik dator ezkererantz garamatzan bidegurutzera, Amazoniara bidean.

OIHANERA Paisaia erabat aldatzen da kilometro gutxian. Egun euritsuak ere ekarpena egiten dio irudi horri, arroilan etengabe behearantz doan errepide bihurtuaren barna. Baños kenduta ia ez dago aipatzeko hiri edo herri handirik bidean, baina ur-jauziak eta turismo aktiborako iragarkiak etengabeak dira Pastaza ibaiaren ertzetik doan bidearen bazter guztietan. Pailon del Diablo ur-jauzia da, ziur aski, ikuspegi bikainena erakusten duena, oinezko txangoan eskaileretan behera ibaira doazen uren indarrarekin txunditu ostean.

Mera herrira iristean, arroila amaitu eta Pastaza ibaia ere handi zabaltzen da. Amazoniaren handitasuna datorkigu begien aurrera; emari itzela dakar eta meandro bihurriak marrazten ditu oihanean, Perura bidean.

Han, Amazonasen emari nagusia den Mara on ibaiarekin bat egiten dute bai Pastazak bai hurrengo helmuga dugun Napo ibai zabalak ere.

Coca hirirainoko tartean, izen bereko ibaiaren urek Napo ibaiarekin bat egiten duten lekuan, oihan zabaleko kilometro asko daude aurretik. Edozelan ere, ia errepidearen amaieraraino iritsita, hondeamakinak eta bidea zabaltzen duten egitasmoak ageri dira, Amazoniako konkistaren lasterketa balitz bezala. Eta ezaguna denez, asfaltoak oihanari irabazitako kilometro bakoitzean giza presioa biderkatzen den eremua eratzen da; egiaz, asfaltorik ere ez da behar hastapeneko errepide irekiaren kasuan.

Edozelan ere, bidea nabigazioa izango da hemendik aurrera aldi baterako. Gura duenarentzat, oihanean barna joateko aukera zabala dago, Yasuni parke nazionaleraino, esaterako. Gure helmuga hurbilago dugu; Puerto Misahualli ondoan emakumeek gidatutako Shiripuno komunitate indigenatik Amazonico izeneko proiekturaino goaz: zaurituta edo gatibu atzemandako animaliak sendatzeko eta berriz ere basa-bizitzara ohitzeko egitasmo interesgarria da. Ez dago zehazki Napo ibaiaren ertzean, baina hor abiatzen da gure nabigazioa. Hondartzak eta irla ugari daude bidean Araujoren lotura guneraino. Ibai horretan gora dago Amazonico.

MUNDUKO ERDIGUNEA Sekulako gozatua da hain eremu laburrean horrenbesteko kontrastearekin topo egitea. Andeatako eremura itzultzeko, bide tarte luzeena dugu orain aurretik; besteak beste, tropikotik goi-lautadaraino garamatzan errepidean gora eginez; Baeza hiritik Papallacta mendaterainoko ia 40 kilometroko igoera arteza da. Goraino iritsita, merezi du bertako ur termaletan atseden hartzea, Andeatako hotzetan eta sumendien ikuspegiarekin.

Ez dugu herrialde eder honetatik alde egin gura bertako azoka ezagunena bisitatu gabe. Askoz turistikoagoa da asteazken eta larunbatetan joanez gero, baina egutegia hala egokitu ez, eta ia turistarik gabe bisitatu ditugu merkatuko txokoak. Kitxua (kichwa, hizkuntzaren iparraldeko aldaerari deitzen dioten horrela) entzuten da, inon baino biziago baitago bazterrotan. Artisauek, saltzaileek eta herriko eta inguruetako biztanleen grinak mendeetako asimilazioari aurre egiteko komunitate antolatua erakusten dute.

Proba txiki baterako tartea izan dugu Otavalon: ekuatorearen marratik iparrera igaro garenez, iturriko ura erlojuaren orratzen noranzkoan mugitzen da harraskan, orain arte beste alderantz egiten zuen bitartean. Bien erdigunea irudikatzeko, La Mitad del Mundo (munduaren erdia) izeneko gune turistikoa dugu zain Quito kanpoaldean: 30 metroko monumentu handi bat da, Ekuadorreko kulturak, herriak eta ezaugarriak azaltzen dituen parke baten erdian. Arazoa da XVIII. mendeko neurketen arabera kokatutako monumentua ez dagoela berez o latitudean, harengandik 240 metro iparraldera baino. Egiazko o' oo' oo" gunea ere bisita daiteke, aldameneko Inti  an museoa, baina zer diren gauzak, gehienek nahi izaten dutena monumentu ikusgarrian eta handik irteten den marra horian argazia egitea da. Eta argazki horrek adierazten du 700 kilometro baino gehiagoko txango eder honen amaiera ere.

GIDA PRAKTIKOA

HEGALDIAK

Madril da Europan Ekuadorrekin konexio gehien dituen hiria. Konpainia batzuen kasuan baliteke eskala egin beharra Europako beste hiriren batean, baita Hego Amerikan ere: Kolonbiako Bogota edo Cali hirietan geldialdia egiten dute, Quitorantz jarraitu beharrean. Ekuadorren bertan, Guayaquilera eta Quitora hegaldi berean joan ohi da, bi hirietako batean geldialdia eginda Europatik joatean, Quiton lehendabizi eta gero Guayaquilen, eta itzuleran, kostaldeko hiritik abiatu eta hiriburuan egiten du geldialdia).

GARRAIOA

Herri gehienak lotzen dituzte autobusek eta hori da mugitzeko modu ohikoena eta merkeena. Herrietatik kanpoko lekuetara iristeko, baina, beste nolabait joan behar da: taxia, txangoren bat hartuta edo autoa alokatuta. Trenez ibiltzeko aukera mugatua da, baina egon badago; XX. mendearen amaieran gainbehera etorritako sarea berriz indarrean da Quitotik hegoaldera doan tarte nagusian.

OSTATUA

Merkea da Europako prezioen aldean, eta arazo handirik gabe aurki daiteke. Ospakizun egunetan aurretiaz hartzea komeni da, ostaturik gabe ez geratzeko.

LARHUNGO TRENEAN

Mari, Herensuge eta pottokak lagun

Orain geldirik dago. Turistentzat, bai. Apirilean hasiko da martxan berriro. Bitartean, burdinbideak aldatzeko materiala garraiatuko du. Izan ere, 2024an ehun urte beteko ditu eta urteurren borobila behar bezala ospatzeko dena prest izan nahi dute. Beraz, Larhuneko kremaiera-trenak errail zaharretan egindako azken bidaia izan daiteke honako hau.

Testua **Ane IPARRAGIRRE** Argazkiak **FOKU eta Getty Images**

Garai batean kontrabandisten babesleku izandako basoak, itxuraz kuriosoen begiradez ohartzen ez diren pottoka basatiak, metro gutxira hegan dabiltzan hegazti harrapariak... Paisaia horretaz gozatuko dute Sarara hurbildu eta kremaiera-tren xelebrean Larhun mendia gailurrera pazientzia handiz eta presarik gabe igotzen direnek. Ia mende bat darama San Inazio mendatea –Azkaine eta Sara artean– eta Larhuneko tontorra komunikatzen. 35 minutuan gailurrera iristen da eta bertatik euskal kostaldearen eta Pirinioen 360 graduko panoramika ikusgarriaz goza daiteke.

Egurrezko kremaiera-treanean egindako bidaia abentura bilakatzen da; batez ere, haurrentzat. Hamaika arrazoik bihur-



tzen dute ibilbide hau berezi; besteak beste, munduan apenas gelditzen direla Larhuneakoak bezalako tren bitxiak.

1924an inauguratu zenetik, martxoa eta azaroa bitartean tren turistikoak egunero eraman ditu dozenaka bisitari mendi tontorreraino, ibilbidea bihurka eginez, Nafarroako eta Lapurdiko mendi-hegalen arteko 736 metroko desnibela gainditu ondoren; alegia, itsas mailatik 905 metroraino. Kremlera motako gainerako mekanismoen antzera, kasu honetan ere errei komunei hirugarren horzdun bat gehitzen zaie erdian; hain zuzen ere, katea martxan jartzen duena.


HASIERAKO ESTETIKA Bitxia bada ere, bagoiek jatorrizko estetikari eusten diote. Inguruko materialez eginak –Pirinioetako izeia, Landetako pinua, Ariegeko gaztainondoa eta iroko-egurra–, bagoiak behin baino gehiagotan zaharberritu dira, baina XX. mende hasierako itxura dute oraindik, eta horrek, jakina, are erakargarriago eta bitxiago egiten du bidaia.

Proiektua 1908an hasi zen, inauguratu baino ia bi hamarkada lehenago, baina, dirudienez, ustekabeen eragozpen ugari sortu ziren –tartean, Lehen Mundu Gerrak eragindakoak–, eta, ondorioz, zoko hamarkadaren hasierara arte atzeratu behar izan zuten. Eta gaur egun, ia mende bat geroago, gora eta behera jarraitzen du, abiadura berean eta mendi-hegal berberetan; hau da, elezaharren, sorgin-kobazuloen eta kontrabandisten ibilbideen eszenatoki izandakoetan.

Hain zuzen ere, tontorraren inguruko elezaharretako batek –zehazkiago, mendi-mazeletan sakabanatutako cromlech eta trikuharrien ingurukoak– Herensuge du protagonistatzat; bertakoen esanetan, mendiaren barruan bizi zena. Dirudienez, Marik hala eskatuta, zazpi buruko suge erraldoi baten itxura zuen herensugeak zaintzen zituen mendiko metal nobleak. Eta halaxe egin zuen, harik eta egun batean, ordura arte mimoz babestutako urrea eta zilarra mendi-hegalean behera botatzea erabaki zuen arte, suzko bola baten antzera.

Harrezkero, inguruko biztanleek zazpi argi bizi ikusten zituzten mendi puntan, ezinbestean herensugearen zazpi buruekin erlazionatzen zituztenak eta, horregatik, erabat izaturik, Anbotoko damari erregutu zioten mesedez herensugereengandik behingoz libratzeko. Hala, Marik krateraren gainean putz egin omen zuen eta dragoia lurraren errailetan egotera kondenatu betiko. Gero, bizilagunek, esker onez, cromlechak eta trikuharriak altxatu zituzten Mariren omenez.

Jakina, Herensuge ez da inoiz gerturatzen tren txikiaren ibilbidera, baina erraz ikus daitezke Larhango bertako paisaiako beste protagonista batzuk: pottokak, manex arrazako ardiak, sai arreak...



LARHUNGO TRENEAN, MARI, HERENSUGE ETA POTTOKAK LAGUN



Egurrezko tren 35 minutuan iristen da Larhunen gailurrera eta bertatik euskal kostaldeko eta Pirinioetako 360 graduko panoramika ikusgarriaz goza daiteke. ≈



“Artea komikigintzan”, bertsioen artelana

AZAROAK 10-URTARRILAK 29

Literaktum letren jaialdiaren baitan antolatutako “Artea komikigintzan” erakusketa ikusgai dago Donostiako Okendo kultur etxean urtarrilaren 29ra arte. Pop artistek komikia izan dute oinarri, baina alderantziz ere gertatzen dela frogatzera dator bilduma.

Mundu mailako margolaritzako obra handiak bertsionatzen dituzten 200 obra baino gehiago biltzen ditu erakusketak, 70 ilustratzaile eta komikilarik sortutako interpretazioak.

Erakusketan ikus daiteke nola inspiratzen den «bederatzigarren artea» deritzona margolari handien maisularen, eta nola omentzen dituen bineta eta

ilustrazioetan. Kasu batzuetan, marrazkilariaren obrak oso modu fidagarrian birsortzen ditu pinturak. Beste batzuetan, berriz, koadro baten konposizioa imitatzen du, edo bere sorkuntzako pertsonaiekin ordezkatzeko dituzten figurak.

Erreferentzia estilistikoak ere badaude: margolari jakin baten margotzeko teknika, kolore bereizgarriak edota argiaren erabilera kopiatzen dira.

Besteak beste, honako artelan hauen interpretazioak daude ikusgai Okendon: Picassoren “Margolaria lanean”, Tapiesen “Mihiztadura eta grafitia”, Magritteren “Goi-mailako gizartea”, Maria Blancharden “Konposizio kubista” eta Roberto Mattaren “Morfologia psikologikoa”, Juan Grisen “Edalontziak, egunkaria eta ardo-botila” eta Paul Delvauxen “Deia”.

* Orrialdeotako agendako informazioa aldatu egin daiteke, osasun krisiak eragindako segurtasun neurri berrien arabera

Zama Doinuz Arindu jaialdia, urte hasierako elkartasun hitzordua

URTARRILAK 16

Amak, Bulego, Zelanda, Onki xin, McOnak eta Modus Operandi taldeak arituko dira Zama Doinuz Arindu jaialdian, Etxarri Aranatzeko kultur etxean. Halaber, Antton Telleria, Mirari Martiarena, Joxe Aldasoro eta Nerea Arriola bakarrikzeta-riek hartuko dute parte.

Etxarriko Sarek eta presoen senide eta lagunek antolatutako elkartasun hitzordua da, dagoeneko Euskal Herrian urte hasierako ekimen erreferentzial bihurtu dena.

Urdazubiko leizeko galerietan zehar, bisitaldi gidatuak laminekin

URTEAN ZEHA

Urtean zehar Urdazubiko leizeak ezagutzeko aukera aparta eskaintzen dute bisitaldi gidatuak. Argi- eta soinu-efektuak baliatuta, estalaktita eta estalagmiten unibertsoa ezagutzeko aukera izango du bisitariak eta, gainera, aspaldian leizeak okupatu zituzten elezaharretako pertsonaien, gerrillarien eta kontrabandisten oroitzapenak ekarriko dizkiote gogora.

Bertan laminak bizi omen ziren; badi-rudi haien ahotsak entzun daitezkeela kobazuloan barrena doan Urtxune erre-karen oihartzunen artean.

Sistiagaren atzera begirako erakusketa, Kubo-Kutxa aretoan

URTARRILAK 28-MAIATZAK 22

Jose Antonio Sistiagaren atzera begirako erakusketa batekin zabalduko ditu berriz ateak, 2022an, Donostiako Kubo Aretoak. Artistaren lanaren «ezinbesteko berrikuspena» eskainiko du, kontuan izanda, Kutxa Fundazioaren hitzetan, Sistiagak beti izan duela «izaera oso pertsonala» eta keinuaren kolorea eta askatasuna beti izan direla nabariak bere lanetan. Gaur Taldeko kideen artean bizirik dagoen artista bakarra da.



Tanttakaren “Semea pixka bat motelago dabil soilik”, Arriagan

UTARRILAK 14-16

Tanttaka antzerki taldeak, Fernando Bernues-en zuzendaritzapean, “Semea pixka bat motelago dabil soilik” antzezlan eskainiko du Bilboko Arriaga antzokian. Mia da protagonista. Ezinbesteko emakumea da etxeko egunerokoan. Familiaren etxea askotariko espazioa da, eta, bertan, hainbat egoera ikusi ahal izango dira: batzuk barregarriak, beste batzuk krudelak edo hunkigarriak, eta beste asko sailkaezinak...

Budapest

Danubioko «perla»

Testua Ane IPARRAGIRRE Argazkiak Getty Images



Zalantzarik gabe, Budapestek Baltikoko «perla» hainbat ikuspegitatik ezagutzera gonbidatzen du. Aukerak anitzak dira: hiria bitan (Buda eta Pest) zatitzen duen zubi sinbolikoa zeharkatzea, bainuetxe ospetsu eta historikoren batean sartu eta erlaxatzea, munduko akustikarik onena duen auditoriumean operaz gozatzea, garagardo bat lasai dastatzea “ruin pub” atsegin batean, Andrásy etorbide luzearen alboetan dauden eraikin ikusgarriei so egotea, ilunabar berezi batekin hunkitzea Arrantzaleen gotorlekuko behatoki estrategikoan...

Noski, bere gustuen arabera aukeratu beharko du bidaiariak bisitaren abiapuntua, baina, seguruenik, asmatu egingo du Budaren muinoa hau-

Hamaika arrazoiengatik harritzen eta erakartzen ditu bisitariak, baina, bereziki, kalez kale helmuga zehatzik gabe ibiltzera eta bertako txokoetan nahita galtzera gonbidatzen duelako. Baita pauso bakoitzari musika egokia jartzen diolako. Budapest da, «Danubioko perla».



tatzen duenak. Gainera, oinez igo nahi ez duenak funikularra erabil dezake. Nolanahi ere, muinorako bidean, Gellert bainuetxeko eraikin ikusgarria topatuko du –ospetsuenetakoa, baina baita turistikoena eta garestiena ere–, eta, behin Gellert mendiaren gailurrean, hiriburuaren irudi panoramikoa ikusi ahal izango du begiratoki pribilegiatu batetik, Askatasunaren Monumentuaren eta haren gotorlekuaren (Ziudadelaren) ondoan.

Panoramikaz gozatu ondoren, hainbat aukera ditu bidaiariak: gotorlekuan sartu eta Bigarren Mundu Gerrako bunkerra bisitatzea, Ziudadelan pasieran ibili eta bertako harresiak lasai zeharkatzea edo Budako Gaztelura hurbiltzea, Hungariako Galeria Nazionalea, Budapesteko Historia Museoa eta Széchenyiko Liburutegia hartzen dituen eraikin dotorerara, hain zuzen.

Gotorlekuak, zubiak, elizak, kobazuloak, museoak, gastronomia... Budapest hiriaren eskaintza oso zabala eta erakargarria da.

DANUBIOKO ZAPATAK Hurrengo geldialdia Parlamentua izan liteke, “Danubioko Zapatak” gunera hurbildu aurretik. Seguruenik, hiriko punturik bisitatuena eta ikusgarriena da. Bertakoek diotenez, Danubio ibaiaren ertzetan fusilatutako juduei oinetakoak kentzeko agintzen zieten, beren gorputzak ibaira erori aurretik. Guztira, hirurogei burdinazko zapata pare dira, pasealekuan zehar barreiatuta. Artelanak Gyula Pauer eskultorearen eta Can Togay zinemagilearen sinadura du.

Ibaiertzean ibiltzen dena Kateen Zubi famatura iritsiko da, Buda eta Pest lotzen dituen sinbolora, alegia. Handik oso gertu, Váci Utca kale jendetsuan, Budapest ezagutzeko beste ezinbesteko geldialdi bat dago: Merkatu Nagusia, leku aproposa Hungariako elikagai tipikoak erosi eta dastatzeko, besteak beste, txahal gulascha.

Sinagoga Handia hurrengo geralekua izan liteke. Munduko bigarren sinagogarik handiena da eta bertan daude Hungariako Juduen Museoa, Goldmark aretoa, Heroien Tenplua eta Raoul Wallenberg Memoriala.

GARAGARDO BAT «RUIN PUB» BATEAN Bisitaren ondoren, atse-denaldia egitea komeni da. Hainbat aukera daude, bakoitzaren gustuen arabera. Batzuk Városliget parkean sartzen dira; “Hiriko parkea” izenez ezaguna da eta bertan daude Vajdahunyad gaztelua, Széchenyiko bainuetxea eta aurpegirik gabeko “Anónimo” eskultura ezaguna, idazle anonimo guztiei eskainia. Beste batzuek, ordea, nahiago dute ruin pub direlakoak bisitatu. Abandonatutako industria-pabiloi handiak dira, sormen eta originaltasun handiz gazteek taberna atsegin bihurtu dituztenak. Bitxikeria bat: Lonely Planet-en arabera, Szimpla Kert munduko hirugarren tabernarik onena da.

Behin indarrak berreskuratuta, hiriko beste aldean zain dago Andassy etorbidea, Hungariako hiriburuko kale nagusia. Bi kilometrotik gora izan arren, oinez egitea gomendatzen dute, batez ere, hainbat eraikin interesgarri presarik gabe aurkitu ahal izateko. Lehenik, Opera Nazionala ikusiko dugu. Eraikin errenazentista da, aparteko akustika duena eta historiako musikari hungariar ospetsuenei eskainitako museoa hartzen duena. Eta, ondoren, Beldurrezko Etxea eta Oktogo eta Heroien plazak. Azken honetan Milurtekoko Memoriala dago, hainbat estatua dituen monumentua, Budapest sortu zuten tribuetako zazpi buruzagien ikur direnak.

AGUR ARRANTZALEEN GOTORLEKUARI Eta, agurtzeko ordua iristean, Budapestek askotariko proposamenak eskaintzen ditu: San Esteban basilikako ia ehun metroko kupulara igotzea, eta Danubion zeharreko bidaia egitea; Matias eliza kurioa bisitatzeko, bizikleta gainean galtzea Margarita uhartean –Buda eta Pest arteko geldiuone bakes-tsu zoragarria–, hiriko dozenaka kobazuloren artean pare bat aukeratu eta esploratzea –Pálvölgyi eta Szemlohengy, adibidez– eta, batez ere, hiria goitik zaintzen duen Halasbasty-ra (Arrantzaleen gotorlekua) hurbiltzea arratsean. Gaztelu formako terraza gotortu bat du eta, zailentzarik gabe, egunari eta Hungariako hiriburuari agur esateko leku ezin hobea da.



BUDAPEST DANUBIOKO «PERLA»





ORKAK FIORDOETAN, SARDINZAR BILA

Orka talde bat itsasontzi bat inguratzen ari da, elur ekaitz batean zehar Skjervoyko fiordoan, Norvegiako iparraldean.

Urria eta otsaila bitartean orken eta balea konkordunen babesleku bihurtzen da, sardinzar bila dabil-tzala, zetazeo honen jaki gogokoenaren bila.

Zero azpitik hiru gradura, ozeanoak sardinzarrentzat tenperatura ezin hobea du.

Gainera, teknika oso garatu bat erabiliz, orkek sardinzar multzo bat inguratzen dute, lurrazalerantz arrastatuz, eta ondoren zorabiatu egiten dituzte beren ur-hegal indartsuen laguntzaz. Urtero errepikatzen da irudia. (O. MORIN)


LAKELAND TRIAL, ANTZINAKO AUTOEN RALLY BITXIA

Lakeland Trialaren 52. edizioak, urtero bezala, auto zaharrak gustuko dituzten ehunka pertsona bildu ditu. Honister Slate Mineko (Borrowdale, Keswick) harrobietako errepidea zeharkatzen du rallyak.

Batzuk lehiakideak dira, noski, baina gehienak ikuskizun bitxiaz gozatzeri hurbiltzen dira, gora eta behera, antzinako ibilgailuak aintzira artean ibiltzen baitira mendixka aldapatsu eta lohitsuak aurre eginez.

Zalantzarik gabe, antzinako harribitxien topaleku bihurtzen da, azkenean, Lakeland Trial hitzordua.





BANJULETIK BARRARA, GAMBIA IBAIA ZEHARKATUZ

Gambia ibaia zeharkatzen duen ferryaren zain dago Banjuleko herritar bat. Barrara joan nahi du behia saltzera. Ontziak ez du ibilbide luzea egiten baina, hala ere, ordu eta erdi beharko du helmugara, merkatura, iristeko, jendez eta animaliaz gainezka egoten baita.

Turistentzako, berriz, abentura bihurtzen da itsas bidaia. (J. WESSELS)



IZOZTUTAKO ATSEDENA

Izoztutako aintzira batean atsedean hartzen ari da, une batez, igerilari ausart bat. Shenyangeko parke batean ateratako irudia da, Liaoning probintzian, Txinako ipar-ekialdean. Han, nonbait, ohituta daude zeropeko tenperaturan igeri egiten. (SAM YEH)

ALARMA TAIWAN-EN APO BERRIA DELA ETA

Apoak oparotasunaren eta zori onaren sinbolo dira Taiwanen, baina espezie inbaditzaile baten ustekabeko agerpenak alarma piztu du funtzionarioen eta ingurumenzaileen artean. Kanaberrazko apoak dira.

Nantou konderriko Espezie Endemikoen Ikerketa Institutuan gordetzen dituzte apoak, arazoari aurre egiteko. (SAM YEH)





LUXORREKO OBELISKOAK BERRITZEKO LANETAN

Parisko Concorde plazan kokatutako Luxorreko obeliskoaren berritze lanak urtarrilean hasiko dira eta ekainean bukatu, Jean-François Champollion egiptoar egiptologoak hieroglifoak deszifratu zitueneko bigarren mendeurrena garaiz ospatu ahal izateko.

Dagoeneko, aldamiok inguratuta dago 25 metroko altuera eta 230 tonako pisua duen obeliskoa. 1836tik dago Parisen. Ordura arte Kairon zegoen, Luxorreko tenpluaren aurrean, baina Mohamed-Alik Frantziari “oparitu” zion. (J. SAGET)



COSQUER HAITZULOAREN ERREPLIKA AURRERA DOA

Aurrera doaz Marseillan Cosquer haitzuloaren erreplika eraikitze lanak, 19.000 eta 33.000 urte bitarteko historia duten pinturak gordetzen dituen urpeko leizea. Henri Cosquer urpekari profesional frantziarrak aurkitu zuen 1985ean Marseillako Les Calanques ingurunean.

Proiektuan lan egiten duten adituek labar-pinturak birsortzen dituzte argazkietatik eta 3D teknologiatik abiatuta. Erreplika 2022ko urrian irekitzea aurreikusita dago, eta bisitariek nabigazioarako ibilgailu txiki batetik ikusi ahal izango dituzte erreproduzioak, esploratzaileek aurkitu zutenean deskribatu zuten atmosfera ahalik eta modurik benetakoenean birsortzeko. (C. SIMON)



M+, MUSEO BERRIA HONG KONG-EN

Hong Kongek arte museo berri bat du azaroaz geroztik: m+. Herzog & Meuron-ek diseinaturako zentro berriak XX. eta XXI. mendeetako hiriko arte bisuala, diseinua eta arkitektura bildu, erakutsi eta interpretatzea du helburu.

Irudian, emakume bat, Wei Guang-qing-en “Suicide Project” artelanaren aurrean, inaugurazio egunean.

West Kowloon kultur barrutian kokatutako espazio hau munduko kultura moderno eta garaikideko museo handienetakoa da m+.



KAMRA-E-FAOREE, ESKUTAN

Haji Mirzaman du izena eta argazkilaria da, baina argazkilaria berezia, Kabulgo kaleetan apenas ikusten baita kamra-e-faoree kamera bat erabiltzen duenik. Hori dabil berak.

Oraindik ere erretratuak nahi dituzten bezeroen bila irteten da etxetik, nahiz eta jakin argazkigintzak izugarritzko aldaketak jasan dituela. Bizitza osoa darama hori egiten eta ez du aldatzeko asmorik. (W. KOHSAR)



GUNE BERRIA HABANAN, FIDELN INGURUAN

Fidel Castroren heriotzaren bosgarren urteurrenarekin batera, Kuba askearen aldeko iraultzailearen inguruko gune berria zabaldu dute Habanan. Guztira, bederatzi areto ditu eta buruzagi kubatarren bizitzan zein ibilbidean zehar bisita birtualak egiteko aukera eskaintzen dio bisitariari. (Y. LAGE)



RHONE GLAZIARRA, ESTALITA, URTU EZ DADIN

Apar isolatzailearekin partzialki estalitako Rhone glaziarrean ari da lanean gizon bat, berotze globalaren ondorioz urtu ez dadin. Hona hemen, datu esanguratsu bezain kezagarria: Suitzako glaziarrek beren bolumenaren %1 galdu dute aurtun. (F. COFFRIN)



Lurralde
berrietara
goaz

bidaiari

Hilabetero zure kioskoan **naiz:**-en bidaia aldizkaria euskaraz